

BURDINBIDE ONDARE ARKITEKTONIKOAREN BERRERABILPENERAKO HASTAPEN JARRAIBIDEAK: UROLAKO BURDINBIDEA IKERKETA KASU GISA

Tesiaren egilea: Urtzi Llano Castresana

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Arkitektura Saila

Tesi-zuzendaria: Agustin Azkarate Garai-Olaun; Santiago Sanchez Beitia

Tesiaren laburpena:

Pasa den mendeko lehen herenetik aurrera, trenbideak ordura arte berea zuen lurreko garraio-sistemaren gailentasuna etengabeko gainbehera jarraituan murgilduko da. Azken mundu-gerraren osteko krisialdiak egoera hori erabat areagotu zuen nazioarteko mailan, eta, hala, ordura arteko mugikortasun-ereduaren eraldaketaren ondorio, bata bestearen atzetik, Europak ordura arte garatua zuen burdinbide-sistema zabala zerbitzutik kanpo geratzen hasi zen.

Euskal Herriko burdinbide-sare oparoa ez zen joera horretatik at geratu, eta, ondorioz, ordura arte ezinbestekoak izan ziren lurralde-mugikortasuneko azpiegituren multzoaren zati garrantzitsu bat erabilerarik gabe geratu zen. Hala, 1953. urtetik aurrera, errepide bidezko garraioaren errentagarritasun eta lehiakortasun handiagoaren aurrean, trenbide-azpiegitura horietariko asko itxi ziren; Euskal Erkidegoan bakarrik, 320 km burdinbide erabileraz kanpo geratu ziren, eta horiekin batera, haien azpiegitura osatzen zuten 250 eraikinetik goragoko multzo zabala.

Zer gertatu da zerbitzutik at geratu diren azpiegitura horiekin? Egun, zein egoeratan aurkitzen dira? Eta batez ere, zer egin daiteke eraikin multzo eta azpiegitura-sare horiekin? Ikerketa honen bidez, besteak beste, galdera horiei erantzuna eman nahi izan zaie.

Ikerketa-lan honen helburua, beraz, egun erabilerarik gabe geraturiko burdinbide-azpiegituren ondarea gizartearentzat berriz erabilgarri izan daitezkeen baliabide gisa berreskuratzeko eman beharreko pausoak finkatzean datza, berrerabilera-estrategiak garatzeko hastapen-jarraibideak zehaztuz. Horiek guztiak Urolako burdinbide-ondarean aplikatu dira, ikerketa-kasu gisa.

Bost pausotan laburbildu daiteke gure ekimena:

1. pausoa: Burdinbide Ondare Arkitektonikoa (BOA) gainontzeko ondare arkitektoniko industrialetik ezberdintzen duten ezaugarriak aztertu eta definitu dira. Artean, lurralde-mailako mugikortasun-azpiegitura lineal bati atxikirik ageri diren elementuen multzoa direla ondorioztatu da, zeinaren ardatzek lurraldea bera artikulatu eta egituratzeko ahalmena oraindik orain mantentzen duten, espazio arkitektoniko-urbanistikoaren eta mugikortasun-ardatzen arteko jatorrizko elkarreagina aitortuz. Hortaz, gauzatu beharreko azterketa, burdinbide-ondare multzoaren osotasunera zabaldu da.

2. pausoa: Erabilerarik gabeko BOAren egoeraren diagnosia zein den aztertu da. EAEko zazpi burdinbide ez-metropolitano nagusiak aztertu dira, trenbide bakoitzeko eraikinen multzo osoaren kontserbazio-egoera eta orain duten erabilerak jaso dira, egungo gainbehera-egoeraren zergatiak aztertu dira eta etorkizunean azpiegitura hauek izan dezaketen berrerabilgarritasun-maila zehaztu nahi izan da.

3. pausoa: Adierazitako problematikari erantzuteko, burdinbide-ondarea kokaturik dagoen lurraldeko baliabide aktibo nahiz potentzialak identifikatu dira, berrerabilera-prozesu eta -estrategiak garatzerako orduan baliagarri gertatu baitaitezke. Bertako gizarteak bere ondarearekiko izan dezakeen identifikazio- eta konpromiso-mailaren ezagutza izango da baliabide horietariko aipagarrienetarikoa bat, aurrera eramango diren ekimenetan gizarte-errentagarritasunaren maila albo batera laga gabe.

4. pausoa: Aurreko ataletan ondorioztaturikoa kontuan hartuko duten jarraibideen proposamena zehaztu da. Horretarako, aztertu dira, besteak beste, burdinbideen ondare azpiegituraren berrerabilera-prozesu bat garatzeko kuantifikagarri bihurtu diren hasierako parametro teknikoak, ondarearen ezaugarriak eta horien erabilgarritasun-maila.

5. pausoa: Ikerketa-kasu gisa, Urolako burdinbidean egin da jarraibideen aplikazioa. Urolako BOAko multzo osoaren berreskurapenerako beharrezko estrategia integralak sustatuko dituen aukeren inguruko emaitzak jaso dira, kasuak izan dezakeen berrerabilgarritasun potentziala adieraziz eta bertan garatu daitezkeen estrategia bateratuen ildoak aurkeztuz.

Nazioarteko tesi honen emaitza gisa, besteak beste, erabilera gabe geraturiko burdinbide-ondare arkitektonikoak multzo gisa bere osotasunean gizartearentzat berriz erabilgarri izateko dituen aukera potentzialen maila eta bertan etorkizunera garatu daitezkeen estrategiak zehazteko jarraibideak aurkeztu dira; horiek guztiak egunera arte egindako esku-hartze orokorretatik haratago doaz, azpiegitura-ondare honek bere osotasunean dituen benetako berrerabilera-aukerak mahai gainean jarri.